

# LUMANEREN SOBREIRA

Jon Unanue López,  
Larramendi Bazkunaren lehendakaria

## Hiru helburu

*Lumane* aldizkari hau sortzeko pizgarria Andoainen urte batzuk lehenago Larramendi Bazkunak argitaraturiko *Atzoko Andoain eta andoaindarrak* aldizkarian izan genuen, andoaindarrek bertakoa zein gustura hartu zuten ikusirik. Jone Larrañagaren gidaritzapean hamasei andoaindarrek osatu zuten bilduma eder hori herritar askoren ahotan dabil gaur egun oraindik ere. Argitalpen harekin gure buruari jarri genizkion hiru helburuak guztiz betetzat jo genituen: batetik, hainbestearinoko aldaketa ekarri zuen XX. mendearen lehen hamarkadetakoa lekukotza bildu nahi genuen protagonista izan ziren herritarren ahotik; kontra zezatela garai hartan haur eta nerabe zirenak nola bizi ziren bere haurtzaro eta nerabezaroran. Bigarrenik, ikerlarientzat lehen eskuko lekukotasun horiek utzi nahi genituen, biharko etnografiak eta historiografiak izan zezaten iturririk garaian garaiko zuzeneko lekukotasunak ezagutzeko. Hirugarren eta azkenik, hori guztia euskaraz –euskara hutsez- izan zedin nahi genuen, lehenik eta behin garai haietako gizartea Beterri-Aiztondon euskalduna zelako ia osorik eta, hain zuzen ere horregatik, garai hartako belaunaldiari orain arte sarritan ukatua ikusi duen bere euskalduntasuna duin itzuli nahi geniolako, gisa horretara azal zedin herritarren aurrean.

Andoaingo argitalpenarekin hiru helburu horiek bete genituen, ongi bete ere, eta geroztik badakigu hainbat gauza argitzeko maiz erabili den argitalpena dela gure hura, bere apalean, landu zuen gai ugarrirari buruz datu kopuru handirik emango ez duen arren, *arrasto* garbi franko azaltzen duena.

Gizarte eta ekonomia egitura aldetik, Amasa-Villabonak Andoaingo ezaugarri asko du, eta erronka polita iruditu zitzaigun Andoaingo saioa Amasa-Villabonara ekartzea; eta ez dugu huts egin: hamasei amasar eta villabonatar elkartu ditugu ia bi urtean giro ezin hobean garai bateko Amasa eta Villabonaz eta herriko bizimoduaz hitz egiteko. Eta Lumane eman genion izena, hura zelako Amasa eta Villabonaren arteko mugan zegoen baserria, XX. mende hasiera hartako beste gauza asko bezala desagertua.

Eta berriro ere bete ditugu buruan generabiltzan hiru helburuak, ongi bete ere. Amasa-Villabonak Lumanerekin izan dugun eskarmentuak adore berririk eman digu gisa bereko argitalpenekin jarraitzeko Gipuzkoako beste herri batzuetan, iraganaren gordailu horrek laguntza ezinbestekoa emango digulakoan geroari aurrez aurre begiratu ahal izateko.

Nork esango orain zortzi bat urte Patxi Baztarrikak Andoainen proposatu zigunean –ia behartu egin gintuen- hainbat herritarrengandik jasotako lekukotasunez argitalpentxoren bat egitea, honaino iritsiko ginenik, eta gisa hartako argitalpen batek halako harrera

beroa izango zuenik gure herrietan. Zalantza izpirik gabe horren guztiaren koxka edo gakoa esku hartu duten herritarrek egindako lanean eta utzitako lekukotasunetan datza, eta haiei zor diegu gure esker onik lehena eta zintzoena, bere haurtzaro eta nerabezaroko bizimodua azaldu digutelako, hamaika pasadizoren berri eman digutelako, batzuk alaiak eta beste batzuk ondo garratzak, denetarik egon baitzen, eta horiek guztiak jendaurrean ezagutzera emateko adorea izan dute.

## Ainhoa Arozenaren uzta

Zorionez Larramendi Bazkunak bazuen noren esku jarri halako argitalpen berezia egin eta osatzearen ardura: Aiuurri aldizkariako Ainhoa Arozena kazetari villabonatarra hor genuen, herria eta eskualdea primeran ezagutzen zuena eta, beraz, lagun ezin egokiagoa mandatu hari heltzeko. Egokiera hura Ainhoa Arozenak berak guztiz baieztatu zigun proposamena egin bezain laster: bazirudien deituriko bilerara buruan zekarrela “herritar” taldea nortzuk osa zezaketen, eta gogoz gainezka eman zion hasiera lanari. Bildu zuen emakume eta gizon amasar eta villabonatarrez osaturiko taldea; ahalegindu zen –baita ederki lortu ere- talde zabala bezain anitza osatzen, eta bere solaskideak prest egon zirenean hilean behin ia bi urtez egin beharreko bileretan jorratuko zituzten gaien zerrenda antolatu zuen: hilero gai bat, hilero bilera bat; hilero hamaika kontu, ateraldi eta pasadizo! Oso gogo onez jardun du Ainhoa Arozenak hilabete horietan guztietan, ezagun zuen galderarik egiten nion bakoitzean, grabaturiko kaseteak entzun ahala hilerokoa idazten ari zenean. Gogotsu eta oso giro onean. Beste horrenbeste esan liteke osatu genuen lagun taldeaz: elkar hartuta oso giro jator eta onean jardun dutela bere haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroko kontuak harrotzen... Baina horren berri Ainhoak eman dezake nik baino hobeto. Nik esan dezakedana da, eta kalean jarri dugun argitalpena da horren lekukorik zorrotzeta, Ainhoa Arozenak oso gogo onez landu duela argitaratu dugun zenbaki bakoitza.

## Udala eskuzabal

Amasa-Villabonako Udalarari gure *Lumane* egitasmoa aurkeztu genionean, Xabier Zabala Zeberio, Euskara eta Hezkuntza zinegotziak ez zuen denbora askorik behar izan gaia udaletxera eraman eta baieztokarekin etortzeko: prest zegoela Udala, argitalpena kalean jartzeko kostu osoari aurre egiteko. Beraz, erabateko laguntza izan da Amasa-Villabonako Udalak eman diguna Lumane osatu eta amasa-villabonatar guztien etxetara iritsi arazteko, eta horretan solaskide eta lankide handia izan dugu Xabier Zabala jauna.

## Maddi Trutxuelo eta Eva García

Erroitz baltzuko bi maketatzailetatik, Maddi Trutxuelo andoaindarra arduratu da *Lumaneri* paperean agertzen duen itxura emateaz. Maddik heldu dio lan horri, berak diseinatua baitzen baita ere *Atzoko Andoain eta andoaindarrak* izenekoak. Itxura emateko garaian argazkiek zer esan handia izan dute, eta hor, laguntza paregabea eman digute argitalpenean parte hartu duten lagunek, argitaratu ditugun argazki gehienak haiek utzitakoak baitira. Gure lekukoez utzitakoez gain, Kutxa fototekakoek utzitako batzuk ere azaldu dira, eta argazki berri guztiak Erroitzeko argazkilari Xabi Ubedak egindako dira. Gainera, gure lekukoez utzi eta argitaratu ez ditugun argazkiekin bilduma polita osatu dugu, eta laster batean haietako asko liburu batean argitaraturik ikustea itxaroten dugu. Horretan ere izango dute zer esanik Maddik eta Evak.



## GOZAMENA

### Ainhoa Arozena *Lumane* aldizkariko zuzendaria

Duela ia bi urte egitasmo honetan lanean hasteko aukera eskaini zidatenean, ilusioz ekin nion bide berriari. Hala ere, ez nuen pentsatu hain gustuko lana izango nuenik. Egia da; betidanik gogoko izan ditut pertsona helduak, jakin-mina sortu izan didate. Berastegiko Miel Joxe aitona gazterik hil zen, ez nuen ezagutu. Ezagutu nituen Dolorex, Martina eta Manuel. Askok maite nituen aitona-amonak. Entzuten nizkien haien gaztetako istorioak baino, dezentte gazteagoa nintzen eta agian, ez nien behar bezainbesteko arretarik jartzen. Gogoan ditut amona Martinak eta Dolorexek kontatuta, Larraizko nahiz Berastegiko belardietan egiten zituzten lanak. Aitona Manuelen hitzetan, Subijana papertegiko oihartzunak. Pena berezia ematen dit, ordea, aitona hainbestetan kontatutako 36ko Gerrako kontuak ondo jaso ez izana. Teruel gora eta Teruel behera, barruan gordeta zituen urte latz haietako arantzak. Anaia-ekin batera, behartuta eraman zuten borrokatzera. Aitona itzuli egin zen, anaia ez...

Etxeko kontu zaharrak alde batera utzita, gatozen *Lumane*ko koadrilarengana. Hamasei kideekin ekin genion lanari. Gerora gehitu zitzaigun hamazazpigarrena. Ez zen hain erraza izan taldea eratztea. *Erretratu zaharrak* liburua osatzen lagundu ziguten hainbat

## Amaitzeko

Bete ditugu, beraz, *Lumane* argitaratzen hasi ginenean gure buruari jarri genizkion hiru helburuak; bete ditugu eta ongi bete ere. Aitortu beharra daukat izan dugun herritar lekukoen taldeari zor zaiola neurri handi batean helburu horiek bete izanaren arrakasta: begirunez eta giro jatorrez jardun dute eta ezaugarri horiek beste herritarrengan barneratu dituzte. Hortik, kiosko eta okindegietan *Lumane* hilean behin izan duen arrakasta. *Lumane* amaitu da, orain argitara emandako zenbaki guztiak bildu eta zuen esku jarritako azalarekin koadernatzeko aukera duzue, zuen ondorengoei utzi diezaiezen noizbait Amasa eta Villabona herriaren garai luze bateko bizimoduaren lekukotza ederra, lekukotza jatorra. Laster da, baina, Larramendi Bazkuna Amasa-Villabonaren izana azalduko digun egitasmo berri batekin. Erne egon eta ez huts egin!

amasar eta villabonatarrei eskatu genien herritarren zerrenda gomendatzeko laguntza. Zerrenda luze-luzea egin genuen baina, guztiek ez zuten egitasmoan parte hartu nahi izan. *Ni baino hobeak aurkituko dituzue*, erreparogatik-edo, batek baino gehiagok eman zigun ezezkua. Jakina, ez ginen herritar guztiengana iritsi eta arrazoi horregatik, ateak guztiz zabalik utzi genituen beste inork bilertara etorri nahi bazuen. Egitasmoak oro har eta taldekideek bereziki, kontu zaharrak ezagutu eta arakatzeko aukera ezin hobea eskaini didate. Harreman ona sortu da taldean, estua. Koadrila polita osatu dugu, zalantzarik ez. Gustura egin dugu barre eta hizketaldi luze bezain interesgarriak izan ditugu udaletxeko bilera gelan lehenik, Gureako erakusgelan gero eta amaieran, udaletxean berriro. Ikasi ere uste baino gehiago ikasi dut. Lehenik eta behin gure herriaren historiaz, ohiturez, bizitzaz, bizimoduaz. Amasaz eta Villabonaz. Amasarrez eta villabonatarrez.

Behin baino gehiagotan eskertu dizuet taldekideoi agertu dizuen borondatea eta jarrera. Nire esker ona luzerako idatzita gera dadin, hementxe beste behin ere. Mila esker banan bana. Gozamenaren izan da zuekin elkartzea. Bilduma amaitu da baina, esku artean dugu liburua. Izango dugu elkarren berri!

## PARTE HARTZAILEAK, BANAN BANA:

**ISABEL BERAZA IGUAN** (Villabona, 1915): Taldeko kiderik helduena. 91 urteren aurrean, bizitzak irakatsitako esperientziaren jabea. Emakume dotorea eta oso goxoa. Begi urdin esanguratsuetatik zintzotasuna dario. Apal eta umil hitz egin du bere haurtzaro eta gaztarora hurbildu den bakoitzean.

**ENCARNA YARZA ZENDOIA** (Amasa, 1916): Mikel Igartzako alabarengan, ziurtasun doinua suma daiteke hitza hartzen duen bakoitzean. Emakume eskuzabala eta oso oroimen onekoa. Umorerik galdu gabe eta euskara dotorean gogoratu du iragana. Hori bai, nortasunez; zorrotz eta zuzen.

**ROBERTO GARATE ELOLA** (Amasa, 1919): Elektrizitatea. Ezagutzen duenak badaki Amallukoaren barne-indarraren berri. Zerbaitegatik deitzen diote "txistulari elektrikoa". Bileretara etorri baino nahiago izan du bere bizipenak kaligrafia txukun-txukunean *eskribituta* ematea. Guk modu berean gorde ditugu, txukun-txukun.

**PAKO ETXENIKE ETXEBERRIA** (Villabona, 1920): Bosgarren zenbakian gehitu zitzaion taldeari. Oso *fitxaje* ona. Buru argiko gizona. Adierazpen guztien artean, 36ko Gerran, aitaren fusilaketaren inguruan egindakoak erraieztatik atera zaizkio, barne-barnetik. Pozik geratu da iragan iluna argitu duelako, ausarta izan delako. Gu ere bai.

**MARTIN LASKURAIN IDIGORAS** (Tolosa, 1922): Behin edo beste bilera ordua ahaztu egin bazaio ere, etxera deitu eta laster prestatu da lagunartera biltzeko. Txistua eta denda, bere bizitzako ordurik gehien eskaini dizkion lanbide nagusiak. Graziaz kontatu ditu gazte garaiko bere bizipenak. Gizon maitagarria.

**JOXE UGARTEMENDIA TOLOSA** (Amasa, 1923): Umorea da Joxeren ezaugarri nagusienetakoa. Hizlaria da eta txistosoa. Ia gai guztiei aurkituko dio alderdi baikorren bat, baina hunkitu behar denean, badaki hunkitzen ere. Gogo onez etorri da lagunartera, gogo onez gogoratu ditu garai bateko kontu zaharrak.

**PELLO IRIBAR PERURENA** (Aia, 1924): Gizon argia, lasaia, atsegina. Aiatik Villabonara hamaika urterekin etorri bazen ere, Amasa nahiz Villabona eta inguruko gainerako herrien berri ondo baino hobeto ezagutzen du. Perratzaile ezaguna izana. Azalpen argiak eman ditu parte hartu duen bilera guztietan.

**ANJEL EGIÑO LASAGA** (Villabona, 1925): Memoria oneko gizona. Txiki-txikiak zireneko pasarteak ere ondo gogoan ditu oraindik eta kontatzen dituenean, egoera biziberritzen ariko balitz bezala, irribarrea marrazten zaio aurpegian. Antzinako herritarren izen eta abizen gutxi egingo diote ihes.

**JABIER BERASALUZE ZALDUA** (Villabona, 1926): Gizon jantzia, ikasia. Hizketan bezala, entzuten ere badakiena. Azken bileretara etorri ez bada ere, idatziz prestatu dizkigu bilkuratan hitz egindako

gaien inguruko bere gogoetak. Urrearen pare gorde ditugu *Lumaneko* artxiboan.

**PEPITA LASA MOROTEGI** (Amasa, 1926): Emakume txiki bezain handia. Baserrian aritu da beti lanean eta ederki ezagutzen ditu hango kontuak. Doinu goxoan azaldu ditu esne-saltzaile garaiak, baita baserri giroko gainerako alorretakoak ere. Irria ahoan, umoreari ere egin dio tarterik bilkuretan.

**ANJELITO UGARTE JAUREGI** (Sao Paulo, 1926): Errebote jokalaria profesionala izaki, munduan barrena bizitu zen Villabonan baino gehiago. Hala ere, tartean-tartean etxeratu egiten zen kanpoko lurretako berrikuntzak eta kontuak ekarritz. Anjelitok izen handia zuen orduko Amasan eta Villabonan. Gustura entzun ditugu bere bizipenak.

**MIGEL LERTXUNDI SUBINAS** (Villabona, 1927): Deitutako bilera guztietan parte hartu ez badu ere, noizean behin *Lumaneko* koardilara bildu da. Hitz zuzenekoa da Migel, villabonatar-villabonatarra. Herritar on bezala, ondo ezagutzen du bertako historia eta oso baliagarriak izan dira bere adierazpenak.

**PAKITA LASA IRASTORZA** (Villabona, 1928): Emakume bizi-bizia hizketan nahiz jarreran. Argi eta garbi azaldu ditu bere iritziak bileretan; aldekoak nahiz kontrakoak. Garai gogorrangoetan gazte haiek zuten gogoia eta indarra agerian utzi ditu. Argi handiko emakumea da oraindik ere Pakita.

**PEDRO ARRATIBEL EPELDE** (Villabona, 1929): Gustura ekin zion iragana eguneratzeko lanari eta lehen bileretara etorri bazen ere, gaixotasuna medio, utzi egin behar izan zion taldera biltzeari. Garai bateko musika bandako kideak igande arratsaldetako emanaldiak gogoratu zituen, besteak beste.

**MARITXU GONZALEZ ODRIOZOLA** (Amasa, 1929): Emakume saiatua eta langilea, lehen bezala orain. Guretzat laguntza handia izan da bere ahalegina. Batetik bestera ibili da gaiekin lotutako argazkiak eskatuz. Zalantzaren bat sortu orduko, zegokionarekin argitu du erantzuna. Adi-adi beti. Alaia eta indar handikoa.

**MARITXU MENDIZABAL ZENDOIA** (Amasa, 1930): Andoainera ezkondu bazen ere, ez ditu Amasan bizitako haur eta gazte garaiko pasarteak inondik ere ahaztu. Baserri giroko nahiz kaleko kontuak ditu gogoan eta hamaika pasadizoren berri eman du arin bezain alai. Pena du bilduma osatzeko lana bukatu delako.

**MARIA LUISA ZALAKAIN ODRIOZOLA** (Villabona, 1930):

Hizkera pausatua du Maria Luisak eta oroimen ona. Taldeko gazteena da, emakume lasaia eta argia. Anaia-arreba askoren artean luxu handirik gabe hazia. Etxean nahiz etxetik kanpo gazte-gazte-tandik lanean aritutakoa. Bizi-bizirik ditu oroitzapenak eta sentimendu handiz kontatzen ditu gainera.

# LUMI

## **Egileak:**

ZALAKAIN ODRIOZOLA, Maria Luisa  
YARZA ZENDOIA, Encarna  
UGARTEMENDIA TOLOSA, Joxe  
UGARTE JAUREGI, Anjelito  
MENDIZABAL ZENDOIA, Maritxu  
LERTXUNDI SUBINAS, Mígel  
LASKURAIN IDIGORAS, Martín  
LASA MOROTEGI, Pepita  
LASA IRÁSTORTZA, Pakita  
IRIBAR PERURENA, Pello  
GONZÁLEZ ODRIOZOLA, Maritxu  
GARATE ELOLA, Roberto "AMALLU"  
ETXENIKE ETXEBERRIA, Pako  
EGIÑO LASAGA, Anjel  
BERAZA IGUARAN, Isabel  
BERASALUZE ZALDUA, Jabier  
ARRATIBEL EPELDE, Pedro

## **Zuzendari eta idazlaria:**

Ainhoa AROZENA GABIRONDO

## **Diseinugile eta moldegileak:**

Maddi TRUTXUELO GARCÍA  
Eva GARCÍA MARGRIÑÁ

## **Argazkiak:**

Xabi UBEDA GOIKOETXEA  
KUTXA fundazioaren fototeka  
Egileek bere bildumetatik ekarriak

## **ekoizpena:**

ERROITZ, b.m.  
Hedabide eta iragarbideak  
Dr. Huitzi kalea, 15-1 - 20140 ANDOAIN

## **ekoizpenburua:**

Jon Ander UBEDA GOIKOETXEA

## **Irarkola:**

SORTU grafikagintza  
(Zizurkil)

## **Argitaratzailea:**

© Manuel LARRAMENDI Kultur BAZKUNA  
Karidade-enea etxea  
Bulandegi bidea, 23-behea - 20150 ZIZURKIL  
Tel.: 943 696 450  
ISSN: 1698-7330  
Lege gordailua: D-1289/04

## **Lehendakaria:**

Jon UNANUE LÓPEZ

## **Amasa-Villabonako ahalduna:**

Arantxa URKIZU OIARTZABAL

## **Babesle:**

AMASA-VILLABONAKO UDALA  
Euskara Zerbitzua

## **Alkatea:**

Bakartxo TEJERIA OTERMIN

## **Euskararen Normalkuntzarako batzordeburua:**

Xabier ZABALA ZEBERIO

## **Euskal Lansaileko arduradun:**

Maite TEJERIA ARREGI

2004 urteko abendutik 2006 urteko irailera bitartean argitaratua.

Hogei zenbakiz osaturiko sorta (0-20), zenbaki bakoitzeko 1400 ale argitaratu dira.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagunduriko argitalpena.